



**BEC!-eko estilo eskuliburua
Komunikazio Instituzionala**

Bilbao Exhibition Centre-ko Ikus-nortasun Korporatiborako Eskuliburu honek markaren adierazpen uniformearen lortzeko jarraitu beharreko arauak biltzen ditu. Bertan, BECeko irudia helarazteko ezarri diren estilo-irizpideak eta identifikazio-elementuen erabilera zehazten da.

Helburua da logotipoa eta sinbolo guztiak modu egokian erabiltzea, unibertso esanguratsuan, koherentean eta adiera bakarrekoan; komunikatzeko gaitasuna duten euskarri guztietan: grafikoak, fisikoak, ikus-entzunezkoak, digitalak eta interaktiboak.

Edozein elementu dibulgatzaile sortuko duen enpresa barruko edo kanpoko pertsonarentzako edo taldearentzako gida eraginkorra izan behar da. Horrela, sorkuntza guztiak “on brand” daudela ziurta daiteke, eta baita tonu, estilo, morfologia, testuinguru eta aplikazio aldetik ezarritako baldintza korporatiboak betetzen direla ere.

Praktikan zalantzarik izanez gero, mesedez, jar zaitez harremanetan Bilbao Exhibition Centre-ko Komunikazio Sailarekin.

e-maila: comunicacion@bec.eu


1. ARAU OROKORRAK

1. Arau Orokorrak

1.1. Markaren eraketa grafikoa

Zehaztutako neurriak eta sinboloaren, logotipoaren eta claim-aren arteko distantziak errespetatu behar dira.

Eraketa eskema barneratzen da.



1.2. Markaren gutxieneko neurria

Marka erreproduzitzeko gutxieneko neurria ondorengoa da: 43mmko zabalera eta 20mmko altuera.



1.3. Markaren erabilera positiboan eta negatiboan



1.4. Tipografia

Sinboloaren letra bakoitza “Franklin Gothic Heavy” tipografiarekin errotulatzeko da. “Bilbao Exhibition Centre” letrak “Franklin Gothic Demi” tipografiarekin errotulatu dira.

Sala Cubec markari dagokionez, “Helvetica Neue Heavy” tipografiarekin.



1.5. Erabiltzeko kolore ofizialak

BEC!-eko irudia osatzen duten koloreak gorria, zuria eta beltza dira. Ahal dela, marka nagusia positiboan joan behar da; hala ere, beharrezkoa bada, negatiboan ere jar daiteke.

Zuzeneko tintan inprimatzeko:

PANTONE
485 C

Kuatrikromian inprimatzeko:

CMYK
0 - 96 - 97 - 0

PANTONE
BLACK

Bestalde, Sala Cubec markaren kasuan, gama kromatikoa handituko da, horia ere erabiltzen delako. Kolore hori Cubec markarekin lan egiterakoan baino ez da erabiliko.

Zuzeneko tintan inprimatzeko:

PANTONE
123

Kuatrikromian inprimatzeko:

CMYK
0 - 10 - 95 - 0

2 ■ MARKAREN BIZIKIDETASUNA

2. Markaren bizikidetasuna

2.1. Antolatzailea

Marka negatiboan atzealde gorriaren gainean erabili behar da.

Marka eskuinean jarri behar da beti.



Atzealde gorria eta logotipoak negatiboan

2.2. Ko-antolatzailea

Ahal dela, marka negatiboan eta atzealde gorriaren gainean erabili behar da; hala ere, beharrezkoa bada, zurira molda daiteke.

Marka eskuinean jarri behar da beti.



2.3. Laguntzailea

Ahal dela, marka positiboan (gorria) erabiliko da; hala ere, beharrezkoa bada, zurira molda daiteke.

Ahal dela, marka eskuinean jarriko da.



2.4. Egoitza

Kasu honetan, BECI-eko esparru fisikoan, beste agente batek antolatutako ekitaldia egingo da, eta beste agente horrek sinatuko du komunikazioa.

Kasu honetarako, gomendioa oinarritzko logoa negatiboan jartzea da.



Markaren erabilera okerra




Markaren erabilera zuzena

3 ■ BRANDING DIGITALA

3. Branding digitala

3.1. Markaren erabilera

Bide digitaletan, logotipoa dimentsioen arabera moldatu egingo da, marka ondo identifikatzeko helburuarekin.





bilbaoexhibitioncentre.com